

erdiko kainera

Artea

«Ez dut kontzeptu pobreekin lan egiten, material pobreekin bai»

Denetariko objektuz beteriko mahai bat: iratzargailu bat, azalore bat, irrati bat... eta aurrean aulki bat. Esther Ferrer (Donostia, 1937) mahaira hurbildu, objektuetako bat hartu, buru ganean jarri eta denbora batez halaxe egoten da. Gero jaiki, buruan zuena utzi eta beste objektu batekin errepikatzen du ekintza; behin eta berriz, mahai gaineko objektu guztiak pasa arte. Horixe da *Las cosas* (Gauzak) izeneko performancea. Bere sinplean, bere xumean, erradikala.

1960ko hamarkadatik gaur arte performancea izan da, batik bat, Parisen bizi den artista donostiarraren mintzaira. Performancea presentziaren artetzat du, ez errepresentaziotzat. "Nik egiten dudana egia da dena, ez dago antzezpenik". Irakaspenik ez duela eman nahi dioen arren, zer ikasia ematen du.

NERE LUJANBIO

Argazkiak: Miren Segurajauregi



Esther Ferrer

1960ko hamarkadan, frankismo bete-betean, nola jarri zinen harremanetan arte munduko abangoardia aurreratuenekin?

ZAJ taldearekin harremana Jose Antonio Sistiaga pintorearen bitartez egin nuen. Sistiagarekin haurrentzat espresio libreko tailer bat egin nuen Donostian. Berak esan zidan ZAJ-ekoek Donostiara etorri nahi zutela zerbait egitera, eta ni parte hartzeko prest agertu nintzen. Ekintza —orduan ez zitzaion performance deitzen— San Telmo museoan egin behar genuen. Zer egin behar zen azaldu zidaten eta zein zen euren dinamika. Niri interesatu zitzaidan, eta egin egin genuen. Amaitzean beraiekin horrelakoak egiten jarraitzea eta taldeko kide bihurtzea proposatu zidaten. Hori bezain sinplea izan zen.

Zure ekintzak erabat minimalistak izan dira beti, apenas ekintzarik gabeak. Zein izan da ikusleen erreakzioa?

San Telmo museoko hartan, ez dakit ikusleak “jantziagoak” ziren, beharbada, artista izango ziren asko, Artisten elkarteak eraikin hartan bertan baitzegoen. Ez dut oso ongi oroitzen baina uste dut ikusleek nahiko jarrera pasiboa izan zutela. Baina hortik gutxira Bilbora joan ginen eta hura beste kontu bat izan zen. Hangoa ikusleago, komatxo askorekin, “ez hain jantzia” zen, oso gaztea, eta nahi izan zuten bezala erreakzionatu zuten. Sekula ez zuten horrelakorik ikusi, ez zekiten performance bat zer zen, eta bi gizona eta emakumezko bat ikusten zituzten oholtzan zernahi egiten, edo apenas ezer egiten. Burutik pasatzen zitzairen edozer esaten zuten.

Garai hartan sorpresak, harridurak bultzatzen zuen ikusleak parte hartzera. Gerora gauzak aldatuz joan ziren eta jendeak ikasi zuen performance bat zer zen. Gaur egun oso ezberdina da.

“Ez dakigu denbora zer den. Dakigun bakarra da arrastoa uzten duela”

Eta horrek naturaltasuna galtzea ekarri du?

Gehienez bai. Orain jendeak askoz gutxiago parte hartzen du. Kontuan izan behar dugu, 66-67 urteez ari garela, 68ko maiatzaren atarian ginen. Denek zuten erantzuteko eskubidea, parte hartzekoa. Beste giro bat zen, beste egoera bat.

Performancearen bilakaerak berak ere izan du eragina. Gaur egun asko gerturatu da antzerkiera. Eta antzokian jendeak ez du parte hartzen, ikusle pasiboa da. Gu antzerkitik ahalik eta gehien urruntzen saiatzen ginen, ez genuen antzerkiko parafernaliarik erabiltzen, ez genuelako gu eta bestearen artean distantziarik egon zedin nahi. Performance bat egiten duzunean hementxe aldamenean bazaude erreza da hurbiltzea, baina oholtza batean bazaude ez. Mugak eraikitzen dituzu.

Zure ekintzek ez dute irakaspenerik eman nahi, ez dira aldarrikapenak. Nondik eta nola sortzen dira?

Hamaika modutan sor litezke. Entzuten dudana zerbait, keinu bat, kalean ikusten dudana zerbait, egoera politiko-sozial zehatz bat... makina bat lekutatik sor liteke.

Beti adibide bera aipatu ohi dut. Garai batean, Parisen, Pont Neuf inguruan bizi nintzen. Gau batean etxetik irten nintzen euripean, negua zen, eta ez zebilen inor kalean. Zubira iristean, oina zubiaren jarri behar nuen istant berean, pareko espaloian gizon bat abiatu zen oinez kontrako norabidean. Eta pentsatu nuen: “gurutzatu egingo gara”. Nik ahalegin guztiak egin nituen zubiaren erdian gurutzatu gintez: nire pausoa bereari egokitu, eta abar. Zubian gurutzatu ginen eta niretzat hura performance bat izan zen. Seguru bera ez zela konturatu ere egin.

Gertakari konkretu hura bezala, izan daiteke ikusten dudana keinu bat, mugimendu



Argitaletxearen azken argitalpenak

Yorick Liburudendan edo www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

Artezblai

Love Josu Montero

Amismategian (el-Mislika) Pablo Barrio

La caja Picik Carlos Be

El arte del actor en el siglo XX Borja Ruiz



bat, edo haserrarazten nauen zerbait. Hase-
rrazten zaituzten gertakarien aurrean zer
egin? Bada, arte obra bat egiten duzu. Oihu
egiteko zure modua hori da.

Zu zara zure lantresna nagusia, zure gorputza.
Performancea gorputz artea da, presentzia
oso garrantzitsua da. Performancean, ni
naiz, ni eta nire gorputza. Eta nik apenas
egiten dut ezer nire ekintzetan, ahalik eta
gutxien egiten saiatzen naiz. Ondorioz,
gorputza, gorputzaren presentzia, asko
nabarmentzen da. Aztoratuta zabilta-
nean, mugimenduan, gorputza ahaztu egi-
ten zaizu, ekintzaren beraren mesedetan.
Baina ia akziorik ez dagoenean, gorputza-
ren presentzia bera da esanahia hartzen
duena.

**Performancea arte feministarekin oso loturik
egon izan da.**

**“Orain badira
emakume gazteen
taldeak, batik bat,
feministak,
performancean
jarduten dutenak
sozialki oso modu
konprometituan.
Lehen ez zen
horrela gertatzen”**

Bai, emakume feminista asko sartu dira
performancearen munduan, esan nahi
duten hori esateko baliabide eraginkorra
izan dutelako. Euren borroka performance-
aren bitartez bideratzeko modua aurkitu
dutelako.

Dena den, fenomeno horrek presentzia
handiagoa dauka orain lehen baino. Orain
badira emakume gazteen taldeak, batik bat,
feministak, performancean jarduten dute-
nak sozialki oso modu konprometituan.
Lehen ez zen horrela gertatzen. Hasieran
performanceen munduan oso jende gutxi
mugitzen zen. Jakingo bazenu zenbat aldiz
izan naizen ni emakume bakarra jaialdi
batean!

**Bitxia da jakitea zehatz-mehatz prestatzen
eta entseatzen dituzula zure ekintza guztiak.**
Gezurra dirudi ekintzak egiten ikusten nau-
zunean, ezta? Ba hala da, bai. Idatzi egiten



ditut, marrazkiak egin, pentsatu, birpentsatu, eta batez ere gauzak kentzen ditut. Elementuak kendu eta kendu egiten dut, ia zer kendurik geratzen ez zaidan arte.

Dena oso ongi prestatzea da niretzat inprobisatzeko dudak modu bakarra. Bakoi-

tzak bere mugak ditu. Nik inprobisatu dezaket soilik aurrez ezarritako esparru bat baldin badut, egin nahi dudana oso argi baldin badut. Hortik aurrera, hala nahi badut, prestatutakoa goitik behera alda dezaket.

Denbora kontzeptua zure lanetan behin eta berriz errepikatzen den elementua da. Zer dela eta interes hori?

Denborari denbora ematea gustatzen zait, gauzak mantso egitea. Pasatzen den denboraren ideia hori interesatzen zait. Kontua da ez dakigula denbora zer den. Dakigun bakarra da arrastoa uzten duela.

Denbora eta espazioa banaezinak dira, baina espazioa ulergarriagoa egiten zaigu, zapaldu egiten dugulako, materiala delako. Denbora, berriz, atzean uzten duen arrastoa baino ez da. Asko interesatzen zait oharkabean pasatzen den denboraren ideia hori, ez zara ohartzen pasa denik, baina bat batean konturatzen zara igaro dela, aurpegian zimur gehiago dituzulako, adibidez.

Performanceak ere denboran zehar aldatu egiten dira nik ezertxo ere egin beharrik gabe. Hori zoragarria da. Maiz ekintzak moldatu egin behar izaten ditut nire gaitasun fisikoaren arabera. 30 urte nituenean egiten nituen zenbait ekintza orain ezin ditut modu berean egin. Nire ekintzak nirekin bizi eta zahartzen dira.

Sekula izan al duzu barregarri geratzeko beldurrik.

Ez. Nik ez diot barregarri geratzeari beldurrik umetan galdu nuelako beldur hori. Eta zalantzarik gabe, izango banu, ez nuke egiten dudana egingo.

Txikitik Clotilde izeneko lagun bat genuen. Berez ez zen ilehoria baina amak ilea tindatzen zion harentzat neskato guztiek ilehoriak izan behar zutelako. Printzesaren eran jantzi ohi zen eta mundu guztiak pentsatzen zuen haur hura erabat irragarria



Donostia

Uztailaren 3tik 12ra, Gipuzkoa plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

zela. Baina nire ahizpa eta ni bere lagun min-minak ginen eta ikaragarri maite genuen. Eta gure ahizpa zaharragoek esaten zutenean “Clotilde neskato polita da baina, zein barregarria!”, gu haserretu egiten ginen. Hori baldin bazen irrigarria izatea, primeran, ikaragarri gustatzen zitzaidan!

Irrigarri izatearen kontzeptu hori... ikasi egin beharko nuke zer den.

Baina askotan entzungo zenuen jendea zuri buruz hori esaten.

Bai horixe! Gogoan dut performanceetan buruan aza bat jarri eta horrelakoak egiten hasi nintzenean, elkarrizketa batean esan nuela: “egiten dudanetik gehien gustatzen zaidana da zenbat eta zaharrago izan, orduan eta irrigarriago izango dela”. Eta benetan, halaxe da. 30 urte dituzunean, tira, baina 71 urterekin aza bat buru gainean jartzeta...! Jendearentzat are irrigarriagoa gertatzen da. Oso gustuko dut ideia hori.


“Dena oso ongi prestatzea da inprobisatzeko dudan modu bakarra”

Eta 70 urterekin biluztu eta aza bat buru gainean jartzeta, ez al da are probokatzailagoa? Ez. 30 urterekin aza bat buru gainean jartzen banuen zergatik ez dut jarriko 71rekin? Berdin gertatzen da biluztasunarekin ere. Hemen badirudi guztiok jantzita jaio ginela! Hala ere, egia da orain ekintza batean biluzten naizenean, biluzte horrek baduela militantzia puntu bat ere, lehenago ez zuena. Militantziagatik egiten dut, jendeak esan dezan emakume batek 71 urterekin ez duela zertan bere gorputza erakutsi. Badirudi ezkutatu egin behar duzula, eta hori ez!

Ikusgarritasunak eta teknologiak hainbesteko presentzia duten egungo arte munduan zein leku dute zureak bezalako ekintza simple eta merkeek?

Aukera bat da. Niri “minimal” lan egitea gustatzen zait. Ez dut uste kontzeptuei dagokienez pobre lan egiten dudanik, baina materialki bai. Ahal badut elementu pobreekin edo birziklatuekin lan egiten dut. Nire instalazio askotan, nik instalazioa egin eta gero dena delakoa bere estatus arruntera itzultzen da, eta erabili egiten da. Hori mundiala iruditzen zait.

Gustatu egiten zait parafernaliaz eta trastez betetako jaialdi batera iritsi eta galdetzen didatenean, “zuk zer behar duzu?”, “Bada,



Dive Tarpoon urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

ezer ez". Eta are gehiago orain performancearen mundua espektakularizatu dagoenean, hainbeste baliabide daudenean.... Iritsi, egin eta alde. Uste dut horregatik gustatzen zaidala hainbeste akzioa, eskaintzen didan askatasun horregatik.

Irakatsi al daiteke performerra izaten?

Betiereko eztabaida da hori. Nik nire iritzia emango dizut, ezetz. Eta zuk esango didazu seminarioak ematen ditudala. Bai, nik seminarioak ematen ditut, baina ez dut performancea irakasten. Zuk ikas dezakezu performancea, baina zerorri izango zara zure irakasle. Seminarioetan parte hartzaileek arieketak egiten dituzte, eta beraien burua probatzen dute, ikusten dute ideia batetik ekintza bat egiteko gai direla. Ondoren, horri buruz hitz eginez, norbera ohartzen da ongi egin duen edo ez, egin nahi zuen hori egitea lortu duen edo ez, interesatzen zaion edo ez, eta abar. Hori bai, hori egin liteke seminario batean. Bat batean norbait ohartu liteke uste zuena baino gehiago interesatzen zaiola performancea bere sormena kanporatzeko bide gisa, eta hortik aurrera nik esaten diot, orain zure teoria, zure praktika, zure diziplina, zure teknika... guztia asmatu behar duzu.



Performerra izaten ezin dela ikasi uste du Esther Ferrerrek. Edo, bai, ikas daitekeela, baina norbere burua izango dela irakasle.

Baina norberak asmatzen badu guztia, nola baloratzen da zer dagoen ongi eta zer ez?

Hori beste kontu bat da. Hain da subjektiboa... Baina, nik adina urte daromatazunean performancearen munduan, norbait ikusten duzunean berehala sumatzen duzu ez dakiela zertan ari den, edo alderantziz, badakizu ideia bat izan duela eta badakie-la zertan dabilen. Nik ez dut ona eta txarra kategoriez hitz egin nahi, soilik niri interesatzen zaidanaz edo interesatzen ez zaidanaz. Performanceak egin nahi dituenak egitea besterik ez du.

Duela hilabete gutxi Espainiako Arte Plastikoen Sari Nazionala jaso duzu urte luzetan ez ikusiarena egin dizuten erakundeen eskutik. Zer suposatu du sari horrek?

Saria ematen dizutenean, bat batean mundu guztia zure bila dabil, elkarrizketak egiten dizkizute, eta abar. Baina nik berdin-berdin jarraitzen dut lanean. Oso kontziente naiz honek guztiak gutxi iraungo duela, eta dena bere izate normalera itzuliko dela laster. Neurri batean poztu egiten zara saria jasotzean, baina, berez, ez da ezer aldatzen, ez nire barruan eta ezta kanpoan ere. Gehiago aldatzen da besteek zutaz duten irudia, zuk zure buruaz duzuna baino. Zuk oso ongi dakizu zer balio duen edo ez duen balio egiten duzunak. ■

URDAZUBI KO LEZEA
 Irundik 40 minututara • Dantxarrietatik 3 km-tara

Argi eta soinuz gidatutako bisitak
Urte guztian irekia

Errota

Tel. 00 34 948 59 92 41
 Leortas auzoa, z/g • 31711 URDAZUBI (Nafarroa)

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
 aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com